

2026ko BIDASOKO NAZIOARTEKO XXVI. ZINEMALDI ARKEOLOGIKOA

Irungo Udalak 2026ko Bidasoko Nazioarteko XXVI. Zinemaldi Arkeologikoa deitzen du, zeina oinarri hauen arabera antolatuko baita

OINARRIAK

BIDASOKO NAZIOARTEKO XXVI. ZINEMALDI ARKEOLOGIKOA 2026ko azaroaren 16tik 21era egingo da. Zinemaldiaren xedea da gizartean arkeologia ezagutzera ematea eta jendea diziplina horretara hurbiltzea, ikerlan arkeologikoen emaitzak jasotzen dituzten ikus-entzunezko obren bidez, oinarri hauen arabera:

Parte-hartzea

1.- Edozein nazionalitatetako pertsonak eta erakunde publikok edo pribatuk ekoiztako genero guztietako dokumentu zinematografikoek parte hartu ahalko dute Zinemaldian (dokumentala, fikzioa, erreportajea, ikerlana...), betiere, edukia arkeologiaren eta teknika arkeologikoen, etnoarkeologiaren, ondare arkeologikoaren eta kontserbazioaren esparrukoa bada.

2.- Parte hartzeko, oinarri hauek osorik onartu behar dira, eta baita epaimahaiaren erabakiak ere, eta, beraz, ez da erreklamaziorik jarriko. Epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein arazo ebazteko.

Izen-ematea

3. Dokumentu zinematografikoak formatu digitalean aurkeztuko zaizkio hautaketa-batzordeari, deskargatzeko esteka bat edo dokumentua bera WeTransfer, Dropbox, Drive edo antzeko plataformaren baten bidez bidalita. Obrak helbide elektronikoko hauetako edozeinetara bidali behar dira:

ficab.oiasso@irun.org •

ficab.oiasso@gmail.com •

Era berean, Festhome plataformaren bidez ere eman daiteke izena (festhome.com), esteka honetan: <http://festhome.com/f/1213>

Honako hauek erantsi behar dira:

- Izena emateko orria, behar bezala beteta eta sinatuta, erantsitako ereduaren arabera.

- Obrari buruzko dokumentazioa: hiru argazki formatu digitalean (300 ppp).
- Aukerako dokumentazioa: prentsarako dosierra, zuzendariaren filmografia.

4.- Hautaketa-prozesura inskribatutako filmak jatorrizko bertsioan aurkeztuko dira:

- Azpidatzirik gabe, filma gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez edo frantsesez badago.
- Gaztelania, euskara, ingeles edo frantsesezko azpidatziekin, filmaren jatorrizko hizkuntza beste bat denean.
- Filma hautatua bada eta gaztelania edo euskaraz bestelako hizkuntza batean filmatua badago, Zinemaldiak bere gain hartuko ditu gaztelaniara eta/edo euskarara itzuli eta azpidazteko lanak, filmak hizkuntza horietako azpidatzirik ez balu. Kasu horretan, testuaren transkripzioa ere bidali beharko dute ekoizleek.

5.- Obrak aurkezteko **azken eguna 2026eko uztailaren 15a** da.

Hautaketa

6.- Antolakuntzak hautaketa-batzorde bat izendatuko du, Zinemaldian proiektatuko diren eta sariak irabazteko hautagai izango diren filmak aukeratu ditzan.

7.- Antolakuntza zuzenean jarriko da harremanetan hautatuekin, Zinemaldiaren fase finalerako hautatu dituztela jakinarazteko.

8.- Hautatutako obra guztiak Zinemaldiaren programa ofizialean eta/edo Zinemaldiaren hezkuntza-sailean sartuko dira.

9.- Hautatutako filmek HD kopia badute, bertsio hori eskatuko da proiektzioan erabiltzeko.

10.- Jatorrizko kopia Zinemaldiaren artxiboan gordeko da.

Proiektzioa

11.- Zinemaldiak iraun bitartean, antolakuntzak eskubidea izango du hautatutako ikus-entzunezkoak jaialdiaren online formatuan erakusteko.

12.- Antolakuntzak eskubidea izango du jasotako material grafikoa zinemaldiaren publizitaterako eta difusio-lanetarako erabiltzeko

13.- FICABen artxiboan gordetako jatorrizko kopia jarduera didaktiko edo kulturaletarako eta sustapena egiteko erabili ahal izango da, baita irabazi-asmorik gabeko zinema arkeologikoko zikloetarako ere, betiere egileak aipatuta.

14.- Antolakuntzak une oro zainduko du dokumentu zinematografikoen osotasuna baina, hori gorabehera eta istripuz kalteren bat izango balute, ez du bere gain hartuko kalteen gaineko ardura.

•
15.- Zinemaldira behin igorri diren obrek ezingo dute berriz parte hartu.

Sailak, epaimahaia eta sariak

Zinemaldiak bi sail dauzka: **Sail Ofiziala** eta **Hezkuntza-Saila**. Inskribatutako film guztiak bi sailetarako kontuan izango dira, zein bere ezaugarrien arabera. Zinemaldiaren hautaketa- batzordea arduratuko da filmak hautatzeaz eta sail bat edo besteari esleitzeaz.

16.- Honako hauek izango dira sariak:

- **Zinemaldiko sari nagusia:** 2.000 euroko saria.
- **Ikusleen sari berezia:** 1.000 euroko saria.
- **EITB saria genero ikuspegia sustatzeko:** 1.000 euroko saria.
- **Hezkuntza-saileko saria:** 750 euroko saria.
- **Dibulgazio zientifikoko Arkeolan saria:** Sari ekonomikorik ez.

Hautatutako filmetako edozeinek irabaz dezake ikusleen sari berezia, EITB saria eta Arkeolan saria. Alabaina, Zinemaldiko sari nagusia sail ofizialeko film batek irabaziko du, eta hezkuntza- saileko saria sail horretako film batek.

Sail ofizialeko eta EITB sariko epaimahaia ikus-entzunezkoen eta arkeologiaren munduan prestigioa duten profesionalak osatuko dute, antolakuntzak izendatuta, eta sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko du epaia, Zinemaldiko amaiera-ekitaldian. Erabakia apelaezina izango da.

Ikusleen saria proiektzioen ondoren ikusleen artean egingo diren bozketen emaitzaren arabera emango da, eta Arkeolan saria fundazio horrek emango du. Hezkuntza-saileko saria Oiaso museoak izendatutako epaimahai batek aukeratuko du.

Sariak *ex aequo* eman daitezke. Hala bada, dagokion sari ekonomikoa film irabazleen artean banatuko da.

17.- Sarietako PFEZaren atxikipena aplikatuko zaie, indarreko legediak ezartzen duen moduan. 18.- Saria

inskrizatzerakoan *saria nork jaso* atalean azaltzen denari emango zaio.

19.-Saritutako lanek saria lortu izanaren aipamena jaso beharko dute "**Bidasoko XXVI. Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa 2026**" erreferentziazko testuarekin, Irungo Udalaren irudi korporatiboa barne (www.irun.org).

Publizitatea eta datu pertsonalen babesa

20. Oinarri hauek jendaurrean jarriko dira 15 egun naturalez, Irungo Udalaren iragarki- oholean argitaratuta.

21. Udal-eskumenen barruan dago datu pertsonalak biltzea, eta egiaztatu edo osatu ahalko dira, beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda, lege-obligazioz, dagokion prozedura behar bezala kudeatzeko. Irungo Udalaren informazio-sisteman sartuko dira, eta datu pertsonalak babesteko legediak aipatzen dituen kasuetan bakarrik lagako zaizkie hirugarrenei.

Interesdunek Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bidez edo www.irun.org/sac egoitza elektronikoaren bidez erabili ahalko dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak. Gainera, erreklamazioa aurkeztu ahalko dute Irungo Udaleko Datuak Babesteko Ordezkaritzaren aurrean, dpd@irun.org helbide elektronikoan, edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean, www.avpd.euskadi.eus; helbidean. Informazio gehiago: www.irun.org/lopd.

Informazio gehiago

Oiasso Erromatar Museoa. www.ficab.org / E-maila: ficab.oiasso@irun.org. Tel.: +34.943.63.93.53.

Irungo Udala www.irun.org / E-maila: cultura@irun.org.

MAZ. Herritarrentzako Arreta Zerbitzua. Irungo Udala. Tel.: 010 / (+34)943.50.51.52.

Irunen, 2026ko otsaila

XXVI FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE ARQUEOLÓGICO DEL BIDASOA
BIDASOKO XXVI. NAZIOARTEKO ZINEMALDI ARKEOLOGIKOA
26th INTERNATIONAL ARCHAEOLOGICAL FILM FESTIVAL OF THE BIDASOA

BOLETÍN DE INSCRIPCIÓN / IZEN-EMATE ORRIA / ENTRY FORM

OBRA / FILMA / WORK

Título original / Jatorrizko izenburua / Original title

.....

FICHA TÉCNICA / FITXA TEKNIKOA / TECHNICAL SPECIFICATION

País de producción / Produzio Herrialdea / Country of production.....

Año de producción / Produzio urtea / Year of production

Lengua original / Jatorrizko hizkuntza / Original language

Subtítulos / Azpitituluak / Subtitles.....

Duración / Iraupena / Duration

Producción / Produzioa / Production.....

Dirección / Zuzendaritza / Directed by

Asesoramiento científico / Aholkularitza zientifikoa / Scientific advice.....

Formato visualización / Ikusteko formatua / Visualization format

16:9

4:3

Participación en otros festivales / Beste zinemaldietan parte hartzeak / Participation in any other festivals

.....

Premios obtenidos / Jasotako sariak / Prizes received

Sinopsis (para el catálogo del festival) / **Sinopsia** (Zinemaldiko katalogorako) / **Sinopsis** (for the Festival Brochure):



OBRA PRESENTADA POR / OBRAREN AURKEZLEA / WORK PRESENTED BY

Nombre y Apellidos / Izen-abizenak / Name and surname

.....
.....

Institución o Empresa / Erakunde edo enpresa / Institution or Company

.....

..... Tel..... E-mail

.....

Web.....

.....Domicilio / Helbidea /

Adress.....

C.P. / P.K. / Post Code. Localidad / Herria / Town

.....

Provincia / Probintzia / District País / Herrialdea / Country

.....

REALIZADOR-A / ERREALIZADOREA / DIRECTOR-A

Nombre y Apellidos / Izen-abizenak / Name and surname

.....
.....

Tel..... E-mail

.....

RECEPTOR DEL PREMIO / SARIA NORK JASO / AWARD RECEPTOR

Nombre y Apellidos / Izen-abizenak / Name and surname

.....
.....

Tel..... E-mail

.....

Firma/Sinadura/Signed



Autorizo la emisión de mi obra por TV de un extracto máximo de 3 min así como el material enviado podrán ser utilizados en publicaciones editadas por la Organización. Los importes de los premios estarán sujetos a la retención del IRPF, conforme establece la legislación vigente.	SÍ	NO Estos datos,
Baimena ematen dut nire obraren zati bat, 3 min gehienez, TBz emateko . eta bidalitako materiala, Organizazioak ateratako argitalpenetan erabil litzake. Sarietako diruari PFEZren atxikipena egingo zaio, indarrean dagoen araudiak xedatzen duenaren arabera.	BAI	EZ Datu hauek,
I hereby authorize the broadcast of my work on TV for a maximum time of 3 min information, as well as the material sent can be used in publications issued by the Organisation. The amounts corresponding to the prizes will be subjected to the payment of taxes, as established by the law.	YES	NO This